



Suziriaren ezteandak eta holi festaren kolore leherketak piztuko dute jaia Larratxon. **SARA IBARGUREN**

Festetan murgiltzeko atzera kontaktetan sartu dira larratxoarrak

Betikoari eutsiz eta berritasunak barneratuz, bidea egiten jarraitzen dute Larratxoko jaiek. Udako lehenetakoak izanik, haien esperoan izaten dira asko. Itxaronaldia laster amaituko zaie, festak ekainaren 5etik 9ra artean ospatuko badituzte ere, aurrekariak bihar bertan helduko baitira.

🔗 Maitane Aldanondo Gabilondo

Gogotsu daude larratxoarrak, auzoko jaien esperoan. «Oso esker onekoak dira, edozer egiten dugunean beti daude, auzoa beti dago». Hala dio Naiara Crujeiras jai batzordeko kideak. Asteak dira datei edo egitarauari buruz galdetzen diotela, prestatutako guztiaren berri izan nahian edo ezer ez galtzeko. Bost eguneko festa noiz iritsiko, atzera kontaketa egiten ari dira,

jada. Ez auzotarrak bakarrik, ordea. Hiriko udako jaietako lehenetakoak izanik, beste askok ere begiz jota baitituzte. «Gainezka egiten du. Jende asko etortzen da eta ekimen guztietan beti dabil norbait, euria ari badu ere».

Suziriak leherrarazi eta holi festak kolorez beteko du festa ostegunean, eta igandera arte zereginik ez da faltako Larratxon. Horren aurretik, ordea,

motorrak pizten hasteko, bihar, areto futbol txapelketako finalaurrekoak eta Sagardo Eguna aurrera eramango dituzte. Halaber, amaierara arte egongo diren ferietako jolasak jarriko dituzte.

Tradizio bilakatutako jardueri beste batzuk gehitzen joan zaizkio, eta hala gertatzea espero dute aurtengo nobedadearekin: Abordatze pirata. «Larratxoko gazteek proposatu ziguten gure laguntzarekin barku pirata bat egitea. Lan eta lan aritu dira», azaldu du Crujeirasek. Karroza prest dute larunbat arratsaldean txosnatik abiatuta tabernaz taberna joan eta jai giroa auzoan zabaltzeko. Torras DJ-a lagun dutela osatuko dute ibilbidea eta piratez janzteko deia egin diete auzokideei.

Auzoko zenbait gaztek proposatuta, barku pirata baten karroza egin eta kalez kale ibiliko dira larunbatean

Arratsalde mugitua izango da, horren aurretik erraldoi topaketa egingo baitute. Iaz estreinakoz antolatu zuten eta izandako erantzuna ikusita, tamaina handiko bisitariak gonbidatu dituzte aurtun ere. Oraingoan, Herrera, Gros eta Larratxoko konpartsekin batera, Loiola-koak eta Amara Berrikoak ere egongo dira. Azken hauenak berriak dira eta larunbatean irtengo dira lehenengoz. Haiekin batera, nola ez, haurrak (eta ez hain haurrak) korrikan jarriko dituzten buruhandiak ere kalez kale ibiliko dira.

Belaunaldi berriak

Abordatzea ez da egin dieten irado-kizun bakarra izan. Esaterako, egin ohi duten paella jan erraldoia, bazkari herrikoi bilakatzeko eskatu diete ere, eta hala egin dute. Crujeirasek onuragarritzat jo du horrelako aldaketak barneratzea; eta asmatu dutela dirudi: «Jende pila bat ari da izena ematen». Proposamenez haratago, jai batzordeko hamar kideak pozik daude bost gazte animatu baitira prestaketekin laguntzera. Behar dutenetan, beti dute

esku bat botako dienik, izan auzokoak, izan kanpokoak; baina, aitortu duenez, belaunaldi berriak pixkanaka sartzen joatea «asko da» beraientzat.

Berritasunez gain, auzoan bolo-bolo dabilen jarduera bat zikiro bazkaria da. «Jaietako izarra», adin guztietako 200 bat lagunentzako otordua da. 28 euroren truke edaria, hasierakoak, entsalada, arkumea, postrea, kafea eta tragoxkak barnebiltzen dituen menuaz gozatuko dute; haurrek, aldiz, edaria, makarroiak eta izozkia, 5 euroan.

Gastronomiarekin jarraituz, jakin-mina pizten duen beste jarduera hilaren 7ko paella lehiaketa da. Eskolan nor baino nor arituko dira 30 bikote, eta izen ematea gaur abiatuko dute. Deiak jaso ahala betetzen doaz zerrenda eta batzordeko kideei beraiena hartzeko eskatu ohi diete bizilagunek aurreko egunetan. «Zoramena da», baieztatu du.

DJ, rap eta Sonakay

Gainerakoan, «betikoak» ez du hutsik egingo, izan ere, antolatzailearen esanetan, «ezin ditugu gauza asko aldatu, jendea gainera botatzen zaigulako». Eta bestalde, funtzionatzen badu, zertarako aldatu? Zerbait nabarmentzekotan, musikaren aldetik jo du jai batzordeko kideak. Batetik, ostiraleko DJ jaialdia. Bertan, Txolas eta Javi Hildalgorekin batera, Torras gazte pasaitarra ere arituko da. Bestetik, Sonakay taldearen kontzertua. «Oso pozik gaude. Duela urte asko etorri ziren, gero arrakasta handia izan zuten, eta orain berriro datoz». Rapak ere bere lekua izango du lehiaketaz gain, El Negro, SNKT eta Txiltxokoren kontzertuekin.

Danborra alde batera utzi eta San Sebastian egunaren bueltan hasi ohi dituzte prestaketak jai batzordeko kideek. Haietan gozatzeko aukera gutxi izaten dute, ordea. Abagune bakarretakoa azken egunean izango dutela uste du. «Zikiroa amaituta, Sonakayk joko du eta erraldoi eta buruhandiak irtingo dira. Guretzat, kuadrillen jaitziera modukoa da, eta parte hartzeko aukera izaten dugu». Besteak parte hartzera deitzeko beharrik ez dela badio ere, auzokoak eta kanpokoak gonbidatu ditu «ondo pasatzera, beti errespetuz». ●



LARUNBATA 31

15:00-19:00

Helduen areto futbol txapelketako finalaurrekoak, Irale patioan.

19:30

XIII. Sagardo Eguna patioan.

OSTEGUNA 5

17:00

Haurrentzat txokolate jana plazan, Leosiñeta eta Bertsolari elkarten eskutik.

17:00

3x3 futbol txapelketa, Larratxoko eskolan.

17:30

Haur ikuskizuna plazan: Amezto produkzioaren Kaktus DJ-a.

19:00

Marrakzi lehiaketaren irabazlea, Larratxoko Jai Alkate 2025 izendatuko da. Partaide guztiak etorri plazara, sorpresak egongo dira!

19:30

Txupinazoa. Jaietako agurra, plazan.

Holi festa txupinazoan, jaiak kolorez bete ditzagun!

Jarraian, erraldoi eta buruhandiak Sastakai txarangarekin betiko ibilbidetik.

20:00

Areto futbol txapelketaren finalaurrekoak, Larratxoko eskolan. Amaieran, luntxa izango da partaideentzat.

20:30

Zezensuzkoa, plazan.

20:30

Unotres Mobb taldearen kontzertua, patioan.

OSTIRALA 6

11:00

Auzoko aitona-amonentzat toka, bote eta rana Larratxoko eskolan.

17:00

Ekaina 2024-ekaina 2025 bitartean jaiotako haurrei jai zapia banatuko zaie plazan.

17:30

Txanpon baten truke haur ikuskizuna plazan, Casares Kultur Etxearen eskutik.

18:45

Helduen areto futbol txapelketaren finala, Larratxoko eskolan.

19:00

Erraldoi eta buruhandiak, dultzaineroen eskutik ohiko ibilbidetik.

20:00

Afari herrikoia Larratxoko plazan, sardina eta saiheskia.

22:30

DJ festibala: Txolas, Hidalgo eta Torras DJ-ak, Larratxoko eskolan.

23:30

Natatxe orkestra, Larratxoko plazan.

Helduen danborrada herrikoia Sastakai txarangarekin, Bertsolari Txirritatik hasiz.

00:30

Zezensuzkoa, Larratxoko plazan.

03:30

Gaurkoz festa amaitu da... Gauaz gozatu!

LARUNBATA 7**10:00**

Diana udal txistularien eskutik.

11:00

Toka eta bote txapelketa, Txirritako plazan.

11:15

Lineako dantzak, Holidanza Kultur Elkartearen eskutik, eskolan.

Jarraian, Donostiako koru eta dantza Virgen de Guadalupe, folklore extremadurarra.

12:00

Auzoko aitona-amonentzat hamaiketakoa, Bella Vista zahar etxean. Auzoko bazkideentzat eta erretiratuentzat soilik.

Haur danborrada Sastakai txarangarekin, Txirritako plazatik.

XII. Paella Lehiaketa, Larratxoko eskolan.

12:30

Anima zaitex eskolako patioan zumba egitera, eta lagundu Asgincer elkarteari.

14:00

Paellen aurkezpena epaimahaiaren aurrean eta sari banaketa, Petritegik babestua.

14:30

Bazkari herrikoia. Kuadrillak eta auzoko bizilagunak, hurbil zaitezte Larratxo eskolan egongo den paella erraldoia dastatzera.

16:00

Mus txapelketa, Indarra tabernan.

Giro-musika, txosnan.

16:30

Futbol txapelketaren sari banaketa, eskolako patioan.

17:00

Erraldoi topaketa, eskolako patiotik. Zatoz eta gozatu hainbat erraldoirekin!

18:00

Aitona-amonentzako dantzaldia Bella Vista zahar etxean, Rafa Erentxunen eskutik.

19:00

Abordatze pirata Larratxon! Karroza auzoko tabernetan zehar, Torras DJ-aren eskutik.

19:30

VIII. rap lehiaketa, Larratxoko eskolan.

20:00

Afari herrikoia, Larratxoko plazan. Sardina eta saiheskia.

22:00

Kontzertuak: El Negro, SNKT eta Txiltxoko, Larratxoko eskolan. Eta bukatzeko... Torras DJ-a.

23:30

80. hamarkadako *remembera* Etto DJ-aren eskutik, Larratxoko plazan.

00:15

Zezensuzkoa, plazan. Kontzu ibili!

03:30

Festaren amaiera.

IGANDEA 8**11:00**

Euskal dantza Herri Ametsa ikastolako taldearen eskutik, Larratxoko plazan.

12:00

Haur batukada Musika Eskolarekin, patiotik hasita.

12:30

Herri kirolak, Larratxoko eskolan:
- Aizkolaria: Manolo Kamañero.
- Harri jasotzailea: Jokin Eizmendi.
- Berriemailea: Miguel Angel Sarasola.

14:30

Zikiri herrikoia, Larratxoko plazan. Kafea Bar Barrioren eskutik.

17:00

Musika, dantzak eta showa Txasiss eta Showtimeren eskutik, patioan.

18:45

Erraldoi eta buruhandiak Sastakai txarangak girotuta ohiko ibilbidetik.

19:00

Sonakay ikuskizuna Larratxoko plazan.

21:00

Jai amaiera traka.

ASTELEHENA 9

Haurren eguna.
Ferianteei esker, feriek prezio merkeak izango dituzte.

17:00

Haurrentzat txokolate jana, Larratxoko plazan.

18:15

Aladdin musikala A.C. los Guachindanguitosen eskutik, eskolako patioan.